



Ebazpena, 2010eko urtarrilaren 15ekoa, Hezkuntza sailburuordearena; honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako proba librean deialdia arautu da eta probak nola egingo diren finkatu da, 2010. urterako.

1.- 2010. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialek araubide librean matrikulatutako ikasleentzako probak egingo dituzte ematen dituzten hizkuntza guztietan, maila hauetan:

- Oinarrizko Maila
- Tarteko Maila
- Maila Aurreratua

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialek araubide librean matrikulatutako ikasleentzako probak egingo dituzte Gaitasun Mailan (C1), eskolek ematen dituzten hizkuntza guztietan, euskara izan ezik.

Eskola guztiek, beraz, ematen dituzten hizkuntzetako maila guztietan egingo dituzte probak.

C1 mailako euskara-egiaztagiria deialdi librean lortu nahi duten pertsonak EGako deialdi librerara aurkeztu beharko dira.

2.- Eskola hauetan matrikulatzeko ezinbestekoa da 16 urte izatea edo 16 urte 2010ean betetzea.

3.- Hizkuntza berean, pertsona bakoitza Eskola eta maila bakar batean matrikulatu ahal izango da araubide librean. Norbait hizkuntza berean matrikulatzen bada maila bitan edo gehiagotan, edo maila berean Eskola bitan edo gehiagotan, ordaindu duen lehenbiziko matrikula bakarrik egingo zaio. Inola ere ez du eskubiderik izango behar ez bezala ordaindutakoak itzultzeko.

4.- 2009-2010 ikasturtean hizkuntza ofizial batean araubide ofizialean matrikulatutakoak ezin dira matrikulatu araubide librean hizkuntza bereko ezein mailatan.

5.- Matrikula egiteko epea 2010ko otsailaren 10a eta martxoaren 2a artekoa izango da, biak barne.

6.- Ebazpen honen bidez araututako matrikula egin nahi dutenek, Internet bidez egin beharko dute, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko <http://eoieuskadi.net> edo <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/hizkuntzak> web orrietan, dagokion eskaera-inprimakia betez.

Norbaitek bi hizkuntza desberdinetan edo gehiagotan matrikulatu nahi badu, eskabide bana egin beharko du.

7.- Eskabideko datuak bete ondoren, prezio publikoa ordaindu beharko da, bi modu hauetako batean:

a) On-line ordainketa. (Internet bidez). Norberaren ordenagailutik ordainduko da, banketxera joan gabe.



b) Off-line ordainketa. “Ordainketa-gutuna” agiria inprimatu eta banketxe edo kutxazain automatiko batera joan beharko da ordaintzera.

Prezio publikoa ordaindu beharrik ez dutenek ere matrikulatzeko prozedurarekin jarraitu beharko dute ordainketa-gutuna inprimatu arte; gutun horretan agertuko da ez dutela ezer ordaindu behar. Ordainketa-gutuna inprimatzen ez bada, matrikula-prozesua ez da burutuko eta, beraz, matrikula ez da baliozkoa izango.

Ordainketa egiteko epea 2010eko martxoaren 10a artekoa izango da. Epe horretan ordaindu ez dutenak matrikula egiteko prozesutik kanpo geratuko dira.

Ordainketa egin duenaren akats batengatik behar ez bezalako ordainketa bat egin denean, ez da dirua itzultzeko eskubiderik edukiko.

8.- Eskabidea egiten duenak, proba egiteko aukeratu duen Hizkuntza Eskola Ofizialean entregatu beharko ditu (edo Eskola horretara bidali posta ziurtatuz edo elektronikoz) agiri hauek:

a) Eskabidea egiten duenaren nortasuna egiaztatzeko agiria (NANaren fotokopia edo horren baliokidea den Europar Batasuneko edozein herrialdetako egiaztagiria, pasaporte edo AIZa).

b) Bizilekuaren egiaztagiria (NANaren fotokopia edo errolda-ziurtagiria).

c) Ikasi edo lan egiten duen lekutik hurbilen dagoen Eskolan azterketa egitea erabaki badu, leku horren kokapenaren ziurtagiri bat ere aurkeztu beharko du.

d) Prezio publikoaren % 50eko hobaria edo erabateko salbuespena baldin badagokio, eskubide horren egiaztagiria ere aurkeztu beharko du.

e) Probak egiteko egokitzapenen bat behar balu, horren berri ematen duen eta Hizkuntza Eskola Ofizialari zuzenduta dagoen idatzi bat ere aurkeztu beharko du.

Bi Hizkuntza Eskola Ofizialetan edo gehiagotan hizkuntza desberdinen azterketak egiteko eskabideak aurkeztu dituenak agiri horiek guztiak helarazi beharko dizkio Eskola bakoitzari.

Eskatzen diren agiriak eskura eman edo posta ziurtatuz bidaltzeko epea 2010eko otsailaren 10a eta martxoaren 10a artekoa da. Ezarritako epean agiriak eman edo bidali ez dituztenak matrikula egiteko prozesutik kanpo geratuko dira.

9.- Jasotako agiriak aztertu ondoren eta ordainketa egin dela egiaztatu ondoren, Hizkuntza Eskola Ofizialek **2010eko martxoaren 23an argitaratuko dute onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda** (baztertzearen arrazoia zehaztuz), hizkuntza eta maila bakoitzean. Informazio hori eskoletako iragarki-taulan eta Ebazpen honetako 6. atalean aipatutako web orrietan argitaratuko dira.



Eskabidea egiten duenak orri horietan kontsultatu ahal izango du behin-behinean onarturik edo bazterturik dagoen eta, hala egin balute, zergatik baztertu duten eskabide bakoitzetik. Horretarako, NAN edo nortasun-agiriaren zenbakia sartu beharko du, eta jaioteguna. Eskabide bat baino gehiago egin badu, NANaren zenbakia eta jaioteguna sartuz kontsultatu ahal izango du denen egoera.

10.- Baztertua izan denak erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Hizkuntza Eskola Ofizialean bertan, egokiak iruditzen zaizkion agiriak erantsiz. Erreklamazioa egiteko, matrikula egiteko erabili duen web orrian dagoen edo Hizkuntza Eskola Ofizialak emango dion inprimakia erabili ahal izango du. Eskabide bitan edo gehiagotan baztertua izan bada, erreklamazio bana aurkeztu beharko du, bakoitza dagokion Hizkuntza Eskola Ofizialean. **Erreklamazioa aurkezteko epea 2010ko apirilaren 15ean amaitzen da.**

11.- Jasotako erreklamazioak aztertu ondoren, Hizkuntza Eskola Ofizialek **2010eko apirilaren 23an argitaratuko dute onartuen eta baztertuen behin-betiko zerrenda** (baztertzearren arrazoa zehaztuz), hizkuntza eta maila bakoitzean. Informazio hori Eskola bakoitzeko iragarki-taulan eta Ebazpen honetako 6. atalean aipatutako web orrietan argitaratuko dira.

Eskabidea egiten duenak orri horietan kontsultatu ahal izango du behin betiko onarturik edo bazterturik dagoen, Ebazpen honetako 9. atalak zehazten duen moduan.

12.- 2009-2010 ikasturtean, ikasle libreek deialdi bakarra izango dute maila bakoitza gainditzeko. Probak maiatzean eta ekainean egingo dira, Ebazpen honen Eranskinean zehaztutako datetan.

13.- Oinarrizko Mailaren Egiatagiria lortzeko, maila horretan matrikulatutako ikasle libreek idatzizko proba bat egingo dute irakurmena, entzumena eta idazmena ebaluatzeko. Proba bera izango da ikasle guztientzat, eta Ebazpen honen Eranskinean zehaztutako datetan egin beharko da, eskolek zehazten dituzten tokietan. Proba horren hiru zatietan ebaluazio positiboa lortzen dutenek mintzamenaren proba egin beharko dute; eskolek zehaztuko dute non eta noiz (eguna eta ordua) egingo den. Proba honetan ere ebaluazio positiboa lortzen duten ikasleek Oinarrizko Mailaren Egiatagiria eskuratuko dute.

14.- Tarteko Mailaren edo Maila Aurreratuaren egiatagiriak eskuratzeko, maila horietan matrikulatutako ikasle libreek ebaluazio positiboa lortu beharko dute trebetasun hauetan: entzumena, irakurmena, idazmena eta mintzamina. Trebetasun hauetako edozeinetan ebaluazio negatiboa izanez gero, ikasleak ezingo du Egiatagiria lortu.

Trebetasun horiek ebaluatzeko, maila horietako ikasle libreek, lehenbizi, idatzizko proba egingo dute; proba horretan mintzamina ez beste trebetasun guztiak ebaluatuko dira. Idatzizko proba bera izango da ikasle guztientzat, eta Ebazpen honen Eranskinean zehaztutako datetan egin beharko da, egun eta ordu beretan, eskolek zehazten dituzten tokietan.



Idatzizko probako hiru trebetasunetan ebaluazio positiboa lortzen dutenek ahozko proba egin beharko dute mintzamina ebaluatzeko; eskolek zehaztuko dute non eta noiz (eguna eta ordua) egingo den. Proba honetan ere ebaluazio positiboa lortzen badute, ikasleek dagokion mailaren egiaztagiria eskuratuko dute.

Idatzizko proban ebaluatzen diren trebetasun guztiak gainditzen ez dituztenei, probaren emaitzen berri ematearekin batera, dagokion mailaren egiaztagiria ezin dutela eskuratu azalduko zaie. Horrez gainera, azalduko zaie trebetasunen batean ebaluazio positiboa lortu arren, hori ez dela kontuan hartuko hurrengo deialdietan.

Halaber, jakinaraziko zaie, hori guztia horrela izanik ere, nahi izanez gero ahozko proba egin dezaketela, eta horretarako berriazko eskaera aurkeztu behar dutela idatziz, ezarritako epealdiaren barruan. Argi eta garbi ohartaraziko zaie proba horren emaitza edozein dela ere ez dutela jasoko Tarteko Mailaren edo Maila Aurreratuaren Egiaztagiria, beste trebetasunen arteko bat ez baitute gainditu, eta adieraziko zaie gainditutako trebetasunak ez direla aintzat hartuko hurrengo deialdietan.

Ahozko proba egitea behar den bezala eta ezarritako epealdiaren barruan eskatzen dutenei proba-deialdia bidaliko zaie, eskola bakoitzak zehazten dituen tokian, egunean eta orduan egiteko.

Tarteko Mailaren edo Maila Aurreratuaren Egiaztagiria eskuratzen ez dutenek ziurtagiri akademikoa eskatu ahal izango dute; ziurtagiri horrek jasoko du 2010eko deialdian zein trebetasun gainditu dituzten, ebaluazio positiboa lortuta.

15.- Euskara ez beste edozein hizkuntzatan Gaitasun Mailaren Egiaztagiria (C1) eskuratzeko, maila horretan matrikulatutako ikasle libreek ebaluazio positiboa lortu beharko dute trebetasun hauetan: entzumena, irakurmena, idazmena eta mintzamina. Trebetasun hauetako edozeinetan ebaluazio negatiboa izanez gero, ikasleak ezingo du Egiaztagiria lortu.

Trebetasun horiek ebaluatzeko, Gaitasun Mailako ikasle libreek, lehenbizi, idatzizko proba egingo dute; proba horretan mintzamina ez beste trebetasun guztiak ebaluatuko dira. Idatzizko proba bera izango da ikasle guztientzat, eta Ebazpen honen Eranskinean zehaztutako datetan egin beharko da, egun eta ordu beretan, eskolek zehaztutako tokietan.

Idatzizko probako hiru trebetasunetan ebaluazio positiboa lortzen dutenek ahozko proba egin beharko dute mintzamina ebaluatzeko; eskolek zehaztuko dute non eta noiz (eguna eta ordua) egingo den. Proba honetan ere ebaluazio positiboa lortzen duten ikasleek Gaitasun Mailaren Egiaztagiria eskuratuko dute.

Idatzizko proban ebaluatzen diren trebetasun guztiak gainditzen ez dituztenek ezin izango dute ahozko proba egin.

Vitoria-Gasteiz, 2010ko urtarrilaren 15a

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA

Izptua.: María Antonia Ozcariz Rubio



ZIURTAGIRIAK LORTZEKO AZTERKETEN EGUTEGIA.
DEIALDI BAKARRA
2009-2010

HEZKUNTZA	MAILA	DATA
ALEMANA	OINARRIZKO MAILA (A2)	1 / 06 / 2010
	TARTEKO MAILA (B1)	3 / 06 / 2010
	MAILA AURRERATUA (B2)	8 / 06 / 2010
	GAITASUN MAILA (C1)	8 / 06 / 2010
GAZTELANIA	OINARRIZKO MAILA (A2)	28 / 05 / 2010
	TARTEKO MAILA (B1)	9 / 06 / 2010
	MAILA AURRERATUA (B2)	9 / 06 / 2010
	GAITASUN MAILA (C1)	9 / 06 / 2010
EUSKARA	OINARRIZKO MAILA (A2)	31 / 05 / 2010
	TARTEKO MAILA (B1)	28 / 05 / 2010
	MAILA AURRERATUA (B2)	4 / 06 / 2010
FRANTSESA	OINARRIZKO MAILA (A2)	28 / 05 / 2010
	TARTEKO MAILA (B1)	3 / 06 / 2010
	MAILA AURRERATUA (B2)	8 / 06 / 2010
	GAITASUN MAILA (C1)	15 / 06 / 2010
INGELES	OINARRIZKO MAILA (A2)	1 / 06 / 2010
	TARTEKO MAILA (B1)	2 / 06 / 2010
	MAILA AURRERATUA (B2)	7 / 06 / 2010
	GAITASUN MAILA (C1)	14 / 06 / 2010
ITALIERA	OINARRIZKO MAILA (A2)	31 / 05 / 2010
	TARTEKO MAILA (B1)	31 / 05 / 2010
	MAILA AURRERATUA (B2)	7 / 06 / 2010
	GAITASUN MAILA (C1)	10 / 06 / 2010
PORTUGALERA	OINARRIZKO MAILA (A2)	28 / 05 / 2010
	TARTEKO MAILA (B1)	2 / 06 / 2010
	MAILA AURRERATUA (B2)	3 / 06 / 2010
	GAITASUN MAILA (C1)	4 / 06 / 2010
ERRUSIERA	OINARRIZKO MAILA (A2)	31 / 05 / 2010
	TARTEKO MAILA (B1)	2 / 06 / 2010
	MAILA AURRERATUA (B2)	7 / 06 / 2010
	GAITASUN MAILA (C1)	7 / 06 / 2010

*ORDUTEGIA. Dagokion Hizkuntza Eskola kontsultatu.